

GUILLERMO MUJICA

Iruñearra, 1941an sortua, apaiz eta teologoa.

Pastoraltza lanarekin batera teologi gogoeta zehatza landu du, beti ere izpirituko askatasun handiz; teologi gogoetetan errealitatearen erronkei eta Gizarteak eta Elizak bizi dituzten garapen prozesuei arreta berezia eskaini die.



Bere heziketaren atal garrantzitsu bat Atzerriko Misioen Institutuetan burutu zen eta Gustavo Gutierrez teologo peruarrarengandik ikasitako eta esperimentatutako Askapen Teologiaren metodoaz baliatzen da.

Gaur egun, bere lana parrokian, ikastaro eta gizarte- eta telogia-eskoletan, mugimendu apostolikoen eta oinarrizko kristau elkarrekin jarraipenean gauzatzen da Halaber, "Los pobres en los padres de la Iglesia" liburua idatzi du eta "Cristianismo, Solidaridad, Resistencia" eta "Los derechos humanos en la Iglesia" liburuetan parte hartu du.

GOGOA FOROA, kristau pentsamenduko elkarte zibilaren kide fundatzailea da eta erakunde horrek eskatu zizkion gogoeta hauek 1997ko apirilaren ospatu zen "Euskal Herriko kristauen ekarpena bakearen alde" izeneko zikolarako.

KRISTAUAK EUSKAL HERRIAN: BAKERAKO EKARPEN BAT



HAUSNARKETAK BAKE-BIDEAN

I HARDUNALDI HAUEN IZENBURUARI BURUZKO HAINBAT GOGOETA

Izenburu nagusiak erakusten duenaren inguruan: "Kristauak Euskal Herrian: bakerako ekarpen bat"

1.a. "Euskal Herrian" diogu:

1. "Euskal Herria" aipatzea testuinguru bat gogora ekartzeko eta gu bertan kokatzeko modu bat da.

2. Aurrekoaz batera gure testuinguruaz galdegiteko modu polemikoa da edo, nolana ere, testuinguru gatazkatsu bat gogora ekartzeko modu zuzena.

a. Gure testuinguruaz galdegiteko modu polemikoa da.

- Euskal Herriaz ari garenean, giza errealitate zein errealitate kultural, historiko eta geografiko positiboaz ari gara, bere baitango izatearekin eta definitzeko dagoen etorkizunera zabalik.

- Nolana ere, termino hau erabiltzea, antzeko bertze batzuk erabiltzea baino onartuago egon eta ohikoagoa izan arren, askok ez luke onartuko gure errealitatea eta testuingurua izen honen baitan jartzea.

b. Ondorioz, testuinguru gatazkatsua izendatzeko modu zuzen bat da:

- Izenak berak sortzen duen polemika berarekin baitarama.

- Gure testuinguruan agerian dagoen gatazka orokorra gogora baitakarkigu ezinbertzez.

- Eta, berez duen izaera positiboaz haratago, halaberharrez, gatazka gogora baitakarkigu, zeina, bertan nahiz hemendik kanpo, zorrotz eta berezientzat joa baita: tentsio-unerik handiena eta ondorio kaltegarrienak sortzen dituena, arreta handien jasotzen duena eta nabarmentze politiko eta sozial handien hartzen duena, behintzat.

2.a. Testuinguru honetan "kristau" kokatzen gara:

1. Lehenengo eta behin tartean sartuta gaude. Hiritarrak garen neurrian, errealitate politiko-sozial honetako partaide garen neurrian, ezin gera gaitzeko arazoaz alde batera, ezta urruneko begirale hobengabe eta aseptiko gisa ere.

a. Gure egintzei eta ez-egiteei, hala nola gure jokabide eta jarre-

ra-hartzei jarraiki, gatazka honen partaide zuzenak nahiz ez-zuzenak gara. Nolanahi ere, partaide.

b. Honetaz gain, badagokigu ardurarik ere, eta hau abiapuntu dugula, gatazka hau gainditzen lagundu beharra dugu.

2. Gaur egun, errealitate honetan sartuta gauden eta bertan inplikaturik gauden askoren kristau izaera kontutan hartzea interesatzen zaigu.

a. Kristau batek, hala izaki, bere fedea, bere bizitzaren eta praktikaren funtsezko ardatz-inspiratzaile eta egituratzaile bihurtzen du, ustez behintzat.

b. Hargatik beragatik, kristau izaki, motibazio berri bat du inplikatzeko, bertze arrazoi bat errealitateari uko ez egiteko. Alabaina, era berean, errealitate honetan nolana ere egon eta inplikatzeko eragozten dioten betekizunak ere baditu.

- Soluzio eta neurri zehatzei dagokienez, kristauak ez du, berez, eta kristau izateagatik, inolako dohai berezirik. Gizarteak dagien bezala, eta harekin batera, arazoei konponbideak bilatzen dizkie eta hauetatik egoki ikusten dituenak bereganatzen ditu.

- Baina, bere kristau-fedea bere baitan darama eta honek hiru eratara eragiten dio:

- Egindakoarekin lasai eta erabat pozik ez egoten.

- Bertze kristauekin batera, nahiz kristau ez izan berdin, gizon-

emakumeak areago kontutan hartuko dituen irtenbideak bilatzera bultzatzen.

- Eta, azkenik, kristau-fedekak bultzatzen dituen eta harentzako uka ezinak diren baloreei jarraiki, alde batetik bere ahalegina norantz, noraino eta nola zuzendu erakusten eta, bertzetik, planteatzen diren helburuekiko kritiko izaten eta bitartekoak hautatzen laguntzen. Sistematikoki adierazita: fedek ez ditu, zuzenki, afera tekniko-politikoak bere egiten. Honela bada, fededunak ez du onartuko edozein helburu ezta edozein bide ere.

c. Badugu balizko eragozpen bat: errealitateaz eta honek eskatzen duenaz egiten ditugun fede-irakurketa guztiak, gure aurre-iritzi etiko-politikoek eta sozio-politikoek markatuta eta baldintzatuta daude ezinbertzean. Ez al dugu izanen, ondorioz, fede-ikuspegia bakoitzak dituen bere aurre-bitartekaritzekin identifikatzeko eta hura hauetara murrizteko arriskurik? Bi dira erantzun osagarriak:

- Kristau baten aurre-baldintzak, ideologikoak eta praktikoak, bere fede-uste sendo, ulermen eta jarrera propioek markatuta daude, berez eta bere baitan, ez erreflexuki.

- Bertzalde, Ebanjelioa irakurri eta fedea gure bizimodu zehatzetik aztertuta ulertzen dugu, dugun eta garen guztiarekin. Baina Ebanjelioak eta fedek ere irakurtzen dute gure bizimodua, kritikatu eta aldaraz dezakete. Errealitatearekiko fidelak izatean Jainkoarekiko leialak izaten saiat-

zen garenean, fedea topatzeko jarrera hartzen dugunean, Ebanjelioari, bertzeekin eta komunitatean, galdetzen diogunean oharitzen gara Ebanjelioan badagoela agortezina den "gehigarri" moduko bat: Jesusen Izpiritua da, komunitatean iharduten duen errealitatean present dagoena eta gudan iharduten duena.

3.a. "Bakerako ekarpen bat" honela ulertuta proposatzen dugu:

1. Bakerako "ekarpenaz" ari gara; nolahi ere, ezaugarri bereziak dauzkan edo eduki nahi dituen ekarpenaz.

a. Lehenengo eta behin, kristauon ezaugarriak izanen dituen ekarpen propioaz ari gara.

- Alegia, ekarpen espezifiko planteatzen diogu gure buruari; honek ez du erran nahi eskusiboa denik (ez eginkizunez ezta printzipioz ere). Antzeko ekarpenak sor daitezke berdin-berdin, eta berez hala gertatzen da, kristau-fedea ez den bertze eremuetatik ere.

- Ekarpen hau ez dugu aipatu berezitasunerako irrikagatik, ardura eta koherentzia zentzua eman nahi diogulako baizik. Alegia, gure iritziz, kristau-fedea baditu guk bete behar ditugun pemia eta gaitasun batzuk.

b. Bertzalde, erran-nahi eta garrantzi handiko ekarpena dela ikusten dugu, baina, oraindik, arras xumea. Hainbat dira hau honela izatearen arrazoiak:

- Hemen kontutan hartuko ez ditugulako, errate baterako, baliz-

ko bitartekaritza bat egitea bezalako eliza-instituzionalaren balizko ekarpenak, ezta bertzelako ekarpen hierarkikoak ere. Elizako oinarriko kristauak ditugu, funtsean, ardatz.

- Eginen dugun fede-irakurketa ez delako Elizan indarrean dagoen eta balioa duen bakarra, gutako asko irakurketa horrekin bat datorrela ere. Badaude, egon, bertze batzuk.

- Gatazkari aterabide teknikorik emanen ez diogulako; izan ere, ez ditugu gure eskuetan eta kristau legeaz, hau ez da guri dagokigun alorra. Guk, gatazkari aurre nola egin eta honi aterabideak ematearekin zerikusia duten zenbait puntu nabarmenduko ditugu, batez ere. Ildo horri jarraiki izanen da gure ekarpena.

2. Horregatik aipatu dugu honakoa bakeari egin nahi zaion ekarpen "bat" dela. "Ekarpen" hitzaren itxurazko handinahiari apaltasunezko itxura emateko. Eta, bada, kigulako badirela izaera sekularreko bertze ahalegin aunitz, zeintzuetan, erran beharra dago, bertze kristau aunitz baitihardute. Halaber, badakigu gure proposamenak ez direla bake-biderako aurrerapauso edo zedarri txiki bat baino.

a. Bakea ezin murriz daiteke, inolaz ere, gatazkak ezagutzen dituen bortxa-adierazpenak desagertzera soilik, ezta bortxa hori egotea eragin duten azaleko zenbait zio gaingertzeraz ere. Bakea ondasun multzo zabalago baten sintesia da.

b. Honengatik ulertzen dugu bake-prozesua bakea erdiesteko ahalegin multzo bat bezala, positibo eta globala. Ahalegin multzo horretan kokatzen dugu geurea ere.



4.a. Aipatutakotik datorkigu gau honetako hausnarketaren izenburua: "Hausnarketak bake bidean"

Hauxe da gure nahia eta hauxe baino ez lagunok: batere erraza eta eroso ez den bide batetik ibiliaz egindako hausnarketa egitea.

BEREZ EKARPEN HANDIA DIREN ATARIKO HIRU DIMENTSIO

Gure testuinguruan, edozein kristau-hitz "sakon-sakonetik" atera behar da:

1. Honek erran nahi du sufrimendu luze, zorrotz eta sakonetik atera behar dela; pairatu behar izaten duten guztien estuasun, isiltasun, oihu eta salaketatik. Gure testuinguru honetan "sakoneko" hitza batez ere biktimak gogoan dituen da. Biktima hauek dira sakontasunaren abiapuntu.

2. Arrazoia bat da. Metz-ek erraten duen bezala, Ebanjelioa -eta Jesusen praktika- berezi izatea zerbaitek egiten badu, hain zuzen ere sufrimendu ororen aurrean duen sentsibilitatea eta sufrimendu horri irtenbidea emateko mugiarazten dituen indar positiboak dira. Hasteko eta behin, Jesusek ez du begiratzen nor den -lagun nahiz etsai, judutar nahiz jentil, errugabe nahiz pekatari eta errudun-, ez du bere errukia egoera zehatz batera iritsi izanaren arrazoiak zeintzuk izan direnaren arabera baldintzatzen. Jesus gutaz erruki da eta egintzara jotzen du.

3. Honek, esku artean ditugun bi arazorekiko bi eronkaren aurrean jartzen gaitu:

a. Arazo bat sufrimendu eta errukiaren aurrean dagoen alderdikeria da, eta, ondorioz, biktimekin eta sufrimendua pairatzen dutenekin egiten den ondaretze-sektarioa. Halaxe da: biktima batzuen eta bertzeen arteko bereizketa egiten dugu, sufrimendua pairatzen duten batzuen eta bertzeen arteko bereizketa. Atsekabea seg-

mentatu eta ikur bihurtzen dugu: alde bakoitzak bere hildakoak eta hauen senideak ditu, sufrimendua pairatzen duten biktimak eta hauen inguruak.

- Alabaina atsekabeak sufrimendua batzuen eta bertzeen arteko segmentazio eta alderaketak egitea galerazten digun dimentsio bat du. Metz teologoak dimentsio hau zertan den oroitarazten digu berriro ere: atsekabearen "singulartasuna" hain zuzen ere. Halaxe da, atsekabetasun bakoitza bakarra da bere horretan. Jesuse-na berarena ere bakarra izan zen moduan.

- Bi dira honen arrazoiak: sufrimendu ororen duintasuna, giza-kiona eta pertsonala baita; eta sufrimendua pairatzen duten guztiek duten autoritatea, pairatzaile baitira. Sufrimendua pairatzen duen orok, pairatzen duelako, bakarra eta baldintzarik gabekoa den eskakizuna egiten digu.

b. Sufrimendua sortarazten duten zioak dira bigarren arazoa. Sufrimendu egoera bati aurre egitea eta gainditzeko saiatazeak, sufrimendu hori sortarazi duten zioei aurre egitea dakar. Baina, zer nabarmendu behar dugu? Sufrimendua pairatzen dutenak ala beren sufrimendua eragiten dutenak? Biktimak ala errudunak deuseztatzea? Sufrimendua arindu edo deuseztatzea ala, zuzenean nahiz zeharka, sufrimendu hori sortzen dutenak presionatzea eta zigortzea? Bertze modura erran-

da: bakea"ren alde" egotea ala bortxa"ren aurka" -honek erakusten dituen adierazpide guztietan- eta bortxa erabiltzen dutenen aurka egotea indartuko dugu? Afera ez datza hautaketak egitean. Afera da zer indartu, lehen aipatu dudana bezala. Nolanahi ere, garrantzi handiko afera da.

- Zuzen-zuzenean gatazkaren jatorrira jotzen badugu, aurrez aurreko eta ezin adiskidetzeko eremuan sartuko gara. Alde bakoitzak bere zergatiak jartzen ditu eta aldeari bakoitzak bizi duen egoeraren errudunak bertze aldean kokatzen ditu. Honela, gatazka areagotu eta sufrimendua luzatu eta laztu egiten da. Batak bertzea salatu eta gaitzetsi egiten du. Bitxiena da, ordea, bi aldeko justiziaren izenean egiten dugula. Baina, zer-nolako justizia da gatazka betikotu eta elkari sufrimendua eragiten diogun hau? Ez al dugu onartu beharko, bederen, aipu dugun justizia hau ez soilik ez dela giza-justizia eta gizalegezkoa, baizik eta, segurasiki ere, gizakiaren aurkakoa dela?

- Indarra edo gakoia zuzenean eta bat-batean zergatietan jartzeko dugun joera hau faktore kulturalen ondorio da. Nik iritzi, bertzeak bertze, kristautasun desitxuratu batek izan duen eragina aipatu beharra dago. Metz-ek, aipatu ditugun xehetasunei, hain zuzen ere, kristautasun historikoan gako aldaketa bat eman dela, antza, erantsi die. Eta honela, haren iritzi, sentsibilizazioa atsekabearen aurrean agertu beharrean, bekatuaren aurrean agertzera igaroak ginateke eta, halaber, sufrimenduen aurkako borrokatik beka-

tuaren aurkako borroka. Azken finean, eta Jesusen jarreraren aurka, Ebanjelioko pasarte ezaguna den sortzez itsuaren sendatzean dizipulu edo ikasleen eta fariseoen izaera errepikatzen arituko ginateke. Jesusek sufrimenduaren aurrean bihozberatasuna erakutsi eta aterabide bat ematen dion bitartean, ikasleek bekataria nor izan den galdetzen diote nork bere buruari, nor ote den itsu izatearen erruduna eta fariseoek, berriz, pentsaera berean harrapatuta jarraitzen tematu dira: "bekatupean sortu zinen", erraten diote sendatu berria den itsuari. Ez dezagun ahantz, bekatu kontzeptua erru, errudun, justizia, justifikazio, ... bezalako kontzeptuekin loturik dagoela.

- Bestalde, Ebanjelioan, nekez topatuko dugu Jesusen hitzetan ezin laguni nahiz kolektibori egindako gaitzespenik. Bekatuzko jokabide oro ezetsi eta arbuatuko du, hori bai. Baita ohartarazpen eta abisu gogorrek eta larriak ere, fariseo eta izkribei zuzendutakoak kasu. Ez, ordea, gaitzespenak.

- Bertze aterabidea dugu; indarra edo gakoia sufrimenduan jartzea. Errazago batu eta adiskidetzen ahal gara sufrimenduan eta berau gainditzeko. Sufrimendua amankomuna da eta hau desagertarazteko nahia ere bai. Hau dela eta, honetan ematen baditugu zuzenean eta berehala gure indarrak, zeintzuk lirateke bideratze horren ondorioak? Nire ikuspuntutik begiratuta hiru lirateke, elkarrekin lotuta:

- Gatazka gizatiarteko dinamika batean sar gintezke.

- Gatazkak dituen adierazpenek aldatzera joko lukete. Honek bortxazko izaera alde batera uztera eta izaera politikoa lantzerara joko luke.

- Azken finean, jokalekua aldatuko litzateke. Hauxe da, gatazkan, indarkeriari dagokionez, esku hartzen duten aldeek nor bere ikuspuntutik eskatzen duena eta, batzuek, baldintza gisa elkarrizketarako benetako bideak zabaltea eskatzen dute eta, bertzeek, berriz, armak isil daitezela.

4. Azken batez, sufrimenduaren aurkako borrokak gizatiartze egoeran jartzen gaitu, nik iritzi. Eta, halaber, gako hau abiapuntu dugula, egoera hobean gaude gatazka sortarazi duen arazoari aurre egiteko eta aterabide zuzenak, gizalegezkoak eta gizakiaren aldekoak emateko.

Kristau-gogoak "egiaren izpirituak egia eraman gaitzan" zabalik egon behar du

1. Edozein gatazka gogor edo/eta luzetan lehenengo biktima egia izan ohi dela erran eta idatzi egin da. Aski ongi dakigu, eta gure esperientzian oinarrituta, egia, edo hobeki erranda egiaren desitxuraketak eta izkutatzeak, gezurra azken finean, egoera horietan borrokarako arma bihurtu dela, gerrarako arma. Ondorioz, egia bertze helburuen zerbitzurako erabiltzen da eta helburu haien menpeko bihurtzen da. Apostoluak salatzen duen horretan erortzeko modu bat da: alegia, bidegabekeria, injustziarekin egia estali. Nolanahi ere, egia erratea, egia hutsa erratea, bakerako ekarpen handietako bat izan daiteke.

2. Jon Sobrinok baieztatutakoa: "Bidegabekeria egia estaltzea pertsonaren jatorrizko bekata da, eta nazioena ere bai. Honen ondorioz, gaitz asko sortzen da, bertzeak bertze, bihotzaren goibeltzea".

3. Alabaina, egiaren zeregin honetan hiru gauzaz jakitun gara:

a. Egiaren zeregin hau tentuz ibiltzekoa eta konplexua da eta beti zabalik dago. Tentuz ibiltzekoa, egia, maiz, ez baita eskura egoten. Konplexua, gaur egun inork ezin duelako egia osoaren jabe izateko asmorik ukan. Gaur egun badakigu, jakin, egiak hedapen kolektiboa eta komunitarioa duela; eta, halaber, egia partzial eta banatuak barneratzea, osatzea eta banatzea erran nahi duela. Egia beti irekia izan behar da, batez ere gizakiari, gizarteari eta politikari dagokienez, gertakari bizi eta dinamikoen aurrean gaudelako eta hauetan ezin ezar daitkeelako behin-betiko egia.

b. Arestian errandakoa kontutan hartzen ez badugu, elkarri iruzur egingo diogun mundu batean, zorigaitzoko ondorio pertsonal eta psikosozialak izanen dituen mundu batean erortzeko arriskua dugu, eta honetan, zail gertatuko da ezer positiborik eraikitzea.

c. Gauden honetan gaudela, gertakari edo erreallitatea eta egia bereiztu behar ditugu. Gertakari gordinek, batzuetan, ez digute ikusten uzten gordetzen duten benetako erreallitatea. Nolanahi ere, komunikabideek gertakariak eta erreallitateaz ematen dizkiguten "berriak" guztiz baldintzatuta

daude. Eta askotan hauen bidez iristen gara gertakarien eta egoeren errealliterara. Hau dela eta oroitazten dut bereizi behar direla gertakariak eta egia. Kristautasunaren ikuspuntutik, egia bultzatu nahi duten askatasun eta profetatutatik, honek garrantzi handia hartzen du. Batzuetan jarrera bat hartu beharko dugu ez hainbertze eta soilik gertakarien inguruko frogetatik, baizik eta egiaren uste osotik.

4. Hemen ardura digunerako, hiru alor aztertuko ditut, funtsezko zat jotzen baitut hauen inguruko zenbait egia erratea. Egia hauek berriak ez badira ere, on gertatuko zaigu gogora ekartzea:

a. Orokorrean bizi dugun gatazka eta indarkeria egoeraz:

- Gatazka egoera luze eta enkistatu batek, areago gatazkan indarkeria erabiltzen bada, gizar-tearen osasun egoera txarra adierazten du, eritasunezko egoera: etikoa, psikosoziala zein politikoa. Ezinbertzekoa da egoera horri aterabideak ematea. Guztiona da ardura. Nolanahi ere, adura areagotu egiten zaie agintea dutenei.

- Honelako izaera duen egoeraren soka ezin aska dezake gatazka bera sortzen edo/eta elikatzen duen aldeetako ezeinek - edozein aldetakoak direla ere. Errate baterako, batzuen jokabidearen arabera, pairatu behar dugun gatazkaren sustraian konpondu gabeko arazo politiko bat dagoela onartu nahi ez izatea eta bertzeek, berriz, estatuaren politika zapaltzaileari ematen dioten



maila bereko erantzunak gertatzen denarekin zerikusirik ez baleuka bezala edo biak, bata bertzearekin, berrelikatuko ez balira bezala jokatzea zorigaitzoko eta gezurrezko itxukeria da.

- Gatazka gogorreko egoera bat indarkeriara erraz jotzea, bertzeak bertze, gatazkan tratamenduaren eta politikoa denaren kultura bati zor zaio, zeina, nola eskuintean hala ezkerrean, dialektikaren izaera ez-gizatiarraz eta gotorlekutuaz erabat blai dagoen. Gizakiaren aurkakoa eta gotorlekutua direla diogu funtsezko bi giza-alderdi alde batera uzten dituelako: bertze, arerioa, nire hurkoa dela (hau da gizakiaren analogia baztertzen du). Eta, bertze oso aurkako edo arerio izanagatik ere, "bertzea" da, bere eskubide eta autonomiarekin (alegia, bertze bat izatearen ontologia baztertzen du). Alabaina, dimentsio antropologiko hauek erabakiorrak dira orokorrean eta, bereziki, kristautasunaren ikuspuntu batetik. Gu gizartekoiago bihurtzen eta "maita ditzagun gure arerioak" Jesusen agindua

ulergarriago egiten duen jarrera etikoaren euskarri dira.

- Indarkeriaren mistika positiboa egitea pentsatzerik ere ez dago, ezein kontzeptupetan. Indarkeria, izaeragatik, modu eta efektuen-gatik ekidin beharreko zorigaitza da. Hala ere, gatazka orok bere justifikazioa bilatzen du eta indarkeria luza dezakeen baliabidea, gizabanakoaren eta gizartearen psikologia da, hori aurrera eramatearen mistika positiboko eraldaketa baten gainean: "askatasunaren aldeko gudariez" edo "ordenuaren langileez" ari garela ere. Baina, bide honetatik aurrera mantso eginda ere, gaizkia -zenbait egoeratan hipotetikoki ekidinezina eta beharrezko-ongia bihurtuko da azkenean. Galbideratzea da, Jon Sobrinok aipu zuen bihotzaren goibeltzea.

b. Bake eta justiziaz, gutxienez bi egia erraten saiatu beharko ginateke:

- Ezein idealek, oso bikaina izanagatik ere -eta justizia eta bakea halakoxeak dira-, ordezka dezake orainak eta bertan izateak, alegia giza-egoerak edo giza-harremanak eskatzen duen gizateria zehatz hori. Ez dezagun ahantz gatazka egoerako harremana gizon-emakumeon arteko harremana dela, gatazka gizaki legez konpondu beharko dela eta gatazka gairiditua izan dela erran ahal izanzen dugula soilik berau aipatutako modu honetan gairiditua izan bada. "Helburuak ez ditu zilegi egiten bitartekoak" printzipioa oroitzeko bertze era bat da.

- Justiziarik gabe bakerik ez dugula izanzen adierazten duen

irizpide etiko eta biblikoa gorde beharra dugu. Isaiasek oroitarazten digun bezala, bakea justiziaren lana eta fruitua da. Alabaina, aldiberean eta kontrajarriak eta osagarriak diren aporia edo egi asko horietako bat bezala, Itun Berriarekin bat eginez, Santiago Apostoluaren ohartarazpenaz, Jesusen mendiko hitzaldiarekin guztiz bat datorrena, oroitu behar gara: justiziaren uzta bakezaleek, Jesusen mendiko hitzaldiarekin guztiz bat datorrena, oroitu behar gara: justiziaren uzta bakezaleek, bakea maite dutenek, ereiten dutela bakean, eta, azken finean, haiek baino inork ez du jasoko uzta hori. Honek guztiak, hizkuntza-bibliokan, gaur egun hizkuntza etiko-utopikoak oso argi duena oroitarazten digu: justizia bake-bidea dela, baina bakea justiziarako bidea ere bada, aldi berean eta ezin bananduzkoa. Bakea ez da biharko eguna. Gaurko egunak eta gu bertan kokatzen gareneko eta eragiten dituguneko moduek arnasten aritu behar duten arnasa baita. Justizia bide zuzena dela erraten den indar berdinarekin, bakea bide zuzena dela erratea ez da, beraz, ezein nahastaileren fruitua. Nolanahi den ere, eta funts berdinari atxekiz, ez bata ez bertzea ez dira bide zuzenak, baldin eta nolabait ere dagoeneko bertan ez badaude: guztion eskubideak errespetatuz eta bide bakezaleak eta bakeranz zuzenduko gaituztenak hautatuz.

c. Bertan iharduten duten indarkeria adierazpenak zehazkiago eta zuzenago aipu ditugula, honakoa erran behar dugu:

- Indarkeria instituzionalari eta egiturazkoari dagokienez:

- Lehenik eta behin hortxe dago-

ela eta ez dela indarkeria politikoa soilik, ekonomikoa, soziala, ideologikoa eta kulturala ere bai-zik. Lehenengo indarkeria motari lotuko natzaio. Onartu beharra dago hemen jatorrizko herria eta kultura daudela, bere borondatearen aurka gutxitua, eta/edo, nolabait



ere, bere oraina eta etorkizuna libreki erabakitzeko eskubidea duela. Herriak eta kulturak errealitate dinamikoak dira, egia da; egia den bezala, batzuek bereganatu dituztela, are masiboki ere, jatorrizkoak ez ziren bertze gizatalde eta osagai eta erreferentzia kulturalak. Elementu etorkin hauek guztiak beren berezko nortasun, duintasun eta eskubideak dituzte. Gainera, jatorrizko giza-eta gizarte ingurunean nolabait integratuak edo bertaratuak izan diren neurrian, gizarte horretako partaide dira etorkizuna definitu eta erabakitzeko orduan. Baina, aldi berean, onartu beharra dute ez daudela jatorrizko herri eta kulturarekiko egoera simetrikoan, begirunea zor diete. Eta gutxitua den jatorrizko kulturak lehentasunezko arreta merezi du.

- Bertzalde erran beharra dago, zehazki ere, autodeterminazio eskubidea ez onartzea tentsio gogorrerako puntu "bat" dela, are indarkeria iraunkorrerako ere. Ez da, berau, bakarra, baina bada, izan. Juan XXIIIak, bere Pacem in terris-en gutxiengo etnikoen bizi-

kortasun eta garapenaren errepre-sioa, justiziak dituen betebeharren bortxaketa larrizat salatu zuen (94-97 znk.). Juan Pablo IIak, 1995eko urriaren 5ean Nazio Batuen Biltzar Nagusiaren aurrean egindako diskurtsoan positiboki heltzen dio eta baloratzen du nazionalitateen

afera, gaur egungoa bezalako mundu irekian izanik ere; nazioen eskubideak alor komunitarioan garatu beharreko giza eskubide gisa ikusten ditu; Estaturik gabeko nazioek existitzeko duten eskubidearen alde egiten du eta, ondorioz, berezko hizkuntza eta kultura izateko eskubidea; eta nazioak existitzeko eskubideak ezinbertzez ez duela estatu subiranotasunik exigitzen onartzen badu ere, nazio ezberdinen bateratetik sortutako balizko estatusubiranoentzat, autodeterminazioerako eskubideak bermatutako askatasun giro baten aldekoa da.

- Erantzun gisa altxatzen den indarkeriaz:

- Lehenengo eta behin honako datua mahaigaineratu behar dugu: honek ezagutzen duen herri-babesa garrantzizkoa eta adierazgarria izanagatik -halaxe baita-, arras euskarri mugatua, gutxiengoarena eta, nik iritzi, beheranzkoa da.

- Borrokan diharduten aldean indarrak ezberdinak izaki, mutu-

rreko indarkeria erantzuleak gizatasunik gabeko, gizakiaren aurkako eta gizatasunaren aurkako modu lazgarriak hartzeko joera du.

- Kontutan hartu beharreko funtsezko alderatze-datu gisa, gehien-go baten irizpide neurtuan, onartu beharra dago hemen bizi dugun indarkeria instituzional eta egiturazkoak ez dutela justifikatzen, gure testuinguruaren orokortasunean, zuzena dena defendatzeko, armak erabiltzea. Eta, bestela ere onartu beharra dago garrantzi handiko moralista askoren iritziz indarkeriari buruzko ohiko doktrina etikoa ez dela aski indarkeria horri arrazoia emateko eta legitimotzat hartzeko, kontutan hartuta indarkeria horren izaera, nola planteatzen den eta sortzen dituen ondorioak.

- Espetxeetako bizi-baldintza gogorren areagotzea, euskal presoen aurkako tratu txarrak eta errepresioa bidegabekoak dira, legez kanpokoa izateaz gain. Bestalde egia ez dugu bere osotasunean aipatzen, gauzak borroka armatua eta honen erasoaldiak espetxeetako bizi-baldintzekin inolako loturarik ez balute bezala planteatzen direnean. Presoen giza eskubideak bere horretan erreibindikatu behar dira. Alabaina, gatazkaren egoera eta preso en esanahia ikusita, hauek defendatzeak erran nahi du kanpoko baldintzen bilakaerak beren egoeraren gain duen eragina bistatik ez galtzea.

• Indarkeria zapaltzaileaz:

- Iraganeko eta gaur egungo gertakari ezagunez gainera, dagoen

jokaleku berezi eta salbuespenekoak, bai politikoa bai zuzenbidezkoak, tratu txarrak eta tortura psikikoak eta fisikoak daudela sinestera garamatza gutako asko. Jose Maria Cirardak, Iruñeko Artzapezpiku emerituak, berriki erran du, Ideiak garai batean gaur bezain argi izan balitu, duela hogeit urte ausartago izanen zatekeela torturak salatuzko. Afera da gauzak bere garaian egitea, nahiz eta haizearen kontra joan.

- Indarkeria zapaltzaileak ez ditu sakoneko arazoak konponduko, ez ditu bertze indarkeriak ezabatuko, ezta bakea eraikiko ere. Indarkeriaren kiribila sustatzen du eta atsekabeari atsekabea gehitzen dio.

Salbuespen afera eta Estatuaren salbuespen-egoera bihurtuta, sistema politikoa usteltzera jotzen du. Hauxe da, neurri handi batean, gertatzen ari dena.

1. Kristau hitza Jainkoaren eta Jesusen Hitzara ahalbait gehien hurbiltzen, ahalbait hobekien itzultzen saiatzen dena da. Beraz, Izpiritura zabalduetako, Izpirituz blai dagoen hitza da -izan nahi du-. Jainkoaren eta Jesusen izpiritu berbera. Dagoen dagoenean eta iharduten utziz gero, dena "berritzen" duela erraten dugun izpiritua, eta "sortzaile" eta "birsortzaile" deitzen dituguna: "¡Veni, Creator Spiritus!", "Zatoz, Izpiritu Sortzailea!". Halaxe da, bizitzaren sortzaile izaki, Izpiritua dena da, gelditasuna izan ezik. Argi erakargarri eta iradokitzaile da, dinamismo eztabaida-sortzailea, gauza berriak bilatzera gara-

Kristau hitza "sortzailea" izan behar da, barrenbarrenekoa delako eta "benetakoa" izaten saiatzen delako

matzan haizea, gure ekimenak sortarazten dituen energia.

2. Kristauek Izpirituan mesias-dohainen sintesia ikusten dute, Jainkoaren Erreinuaren eta Jainkoa Bera den bizi berriaren ondatsunen sintesia. Izpiritua, halaber, bere sustraia eta motorea da. Hau dela eta, Jainkoaren Erreinuaren aurrera egiteak dakarren eta exigitzen duen guztirako norabidean mugitzen gaitu eta eragiten digu iraunkorki. Honela, ez gaitu lasai uzten, kezka pizten du gure baitan, gaudenetik mugiarazten digu. Izpiritua ez da, bertzerik gabe, "gauza berrien" zale. Laguna da, Bizi Berriaren umetokia da, zeinak bidegabekeria oro eta gizon-emakumeen aurkako iharduera guztiak gainditzea baitakar eta hori hala izatea eskatzen baitu, hala nola gizakitasuna, justizia, elkartasuna eta askatasuna areagotzera bideratuko duen guttia bilatzea eskatzen duena.

a. Hau dela eta, kristaua egoera hondatuak berregiten saiatzen da. Hartarako, ez du aski jasotako gaitasuna leku zurreran gordezea; ezta egon dagoen edo ezarrita dauden bide ibiliak egitea. Erran dezakegu mugitzen, arriskatzen, bide-zidor berriak bilatzen eta irekitzen saiatzen dela, hauek txikiak izanda ere. Saiatu egiten da bederen.

b. Honela denei oroitaraz diezaieke -eta horixe da bere ekarpena- gu sentiberatasunik gabeko bihurtu nahi gaituzten gogogabetasunaren eta etsipenaren aurrean, egoera onartarazi eta egoeran integra gaitzezen nahi duten gogogabetasunaren eta etsipenaren

aurrean, zerbait egin behar dugula, sortzaileak izan behar dugula, bakeari bideak ireki behar dizkiogula.

3. Politikoengandik jaso beharko genuke eta politikoei eskatu beharko genieke antzeko jarrera. Arazoak konpontzeko daude dauden horretan, ez, ordea, nork bere interesen edo dogma abstraktu eta eraginik gabekoen izean arazo horiek lohitzeko. Hartarako, dena dela, irekiak, sortzaileak izan beharko dira, mugitu egin beharko dira, arriskatu.

ARAZOAREKIKO ETA HONEK IZAN DITZAKEEN IRTENBIDEEKIKO HURBILPENA GIZALEGEZKOAGOA IZAN DADIN, GILTZARRI DIREN HIRU EKARPEN NIMIÑO

Fedeak errealitate- arekin zintzoak izaten eskatzen digu

1. Errealitatearekin zintzoa izatea, Ellakuria eta Sobrinok plazaratu-tako ildotik: errealitatearen ardu-ra hartzea, bere gain hartzea eta hartaz arduratzea. Lehenengo eta behin egoerekiko hurbilpena eman eta bertan egon behar da, ulermen kritiko eta eraldatzaile-rako ahalegina egin behar da, kontutan hartuak direnen eta ahul direnen ikuspuntuan jartzeko ahalegina egin behar dugu. Bertzalde, bat egin behar dugu errealitatearekin, gureganatu egin behar dugu, aktiboki eta ardurasuki errealitatean txertatu behar ditugu gure buruak. Eta, azkenik, errealitatearekin eta hartan, konpromezua hartu behar dugu, eraldatzen lagundu behar dugu.

2. Kristaua erreala denarekin zintzo izateko lau printzipio izenda ditzakegu, bertzeak, bertze:

a. **"Sortzapen"** printzipioa. Errealitate osoa, nolabait ere, Jainkoaren sortze ekintzan kokatzen da eta haren osagai da. Errealitate horrek aipatu ekintzari historian zeharreko giza-iharduera guztia txertatzen dio. Jainkoarekin zintzoak izan nahi badugu, Harengana zuzentzen gaituen errealitatearekin zintzoak izan beharko gara. Jainkoaren sortzapenean funtsezkoak diren zenbait puntu ahortzi gabe: erreala denaren balioa eta duintasuna; erreala denaren irekiera; giza-iharduera sortzailearen ardura; gizon-ema-

kumeon ezintasuna eta goi-mai-lako izaera; guztia egitearen ez-gaitasun morala -hortik zuhaitz debekatuaren fruitua ez jateko jatorrizko debekua-; bekatuak gaitasuna, bere ondorioekin.

b. **"Agerkunde"** printzipioa. Bada-go Jainkoaren agerkunde iraunkor bat. Kristauak badaki, jakin, errealitatean eta honen bitartez, Jainkoa agertu eta bere borondatea erakusten diola. Honek bereizketarako jarrera iraunkorra eskatzen dio. Baina, errealitateari zentzua aldatu, manipulatu nahiz desitxuratu behar badu, Jainkoari entzuteko aukera blokeatu edo haren ahotza berearekin propioarekin nahasten ahal du.

c. **"Haragitze"** printzipioa. Errealitate Jainkoaren Semeak bereganatu du. Erreala dena, honela, bereziki birbalaratua eta santutua geratzen da, gizon-emakumeon bizia bereziki. Honetaz gainera, erreala dena, Jainkoaren Semeak bereganatu du, sendatua eta osatua izan dadin.

d. **"Salbazio"** printzipioa. Kristaua errealitatearekiko zintzo jokatzeko saiatzen da salbazioa edo askapena errealitate osoari zuzendua delako eta errealitatea bere osan askatu edo salbatu behar delako.

3. Alabaina, zer ulertzen dugu hemen "errealitateaz"? Guri dago-

kigu bereiztezinak diren hiru osagaiko multzoa izendatzea:

a. Lehenengo eta behin, nahiz eta aspaldiko egia iruditu, gogoan izan behar dugu errealitatea errealitatea dela, alegia "egon dagoena". Beraz, ezinbestean kontutan hartu behar dugun horixe da errealitatea. Gure iritziz zuzena izan nahiz ez, ongi nahiz gaizki iruditu, gustukoa izan nahiz ez, errealitatea kontutan hartzen ez badugu eta bere osotasunean gureganatzen ez badugu, ez gara harekin zintzo jokatzeko arituko; bere osan aurre egiten ez badugu.

b. Baina, hartaz erakutsiko zaigunaz gain, errealitatea izan bada, izan daitekeena eta izatera heldu behar dena ere. Eta hau, hain zuzen ere, gizon-emakumeon mundua ezperfektua delako, eta, maiz, gizakiaren aurkakoa eta bidegabekoa. Aurrekoa alde batera utzita, errealitatea irekia eta dinamikoa da, berezko dinamismoak dituen, ez da argazki estatikoa. Hau dela eta gizon-emakumeok errealitatea eraldatzera eta garatzera deituak sentitzen gara.

c. Azkenik, mundua gizatiarra da ezerean ginetik, pertsonen mundua, gizon eta emakume zehatzez osatua. Hauek dira errealitate horretako elementurik garrantzizkoenak. Haren zati bat dira, baina errealitate osoa haien baitan dago eta haien zerbitzura egon behar da. Haien gabe errealitatea hutsaren hurrena bezalako da.

4. Errealitateak zer arazo sortzen digu horrela ulertuta?

a. Gauza hau da: orain dagoenaren izenean, betiere kontutan hartuta honek ez duela erakusten errealitatea bere osan, zatikatua baizik -Espainia kasurako-, errealitate posiblea, irudikatutakoa edo amestutakoa eta, nolabait, errealitate onartu eta osatu gisa gauzatu beharko litzatekeena, ukatu egiten da. Nola eta zeintzuk terminotan egiten den ukapena bertze afera bat da. Eta hau aipatu dugu ez gaudelako bi errealitate simetrikoren aitzinean, bertan lehenengoa errealitate "etorkina", erantsia baita; bigarrena, ordea, jatorrizkoa.

b. Bestalde, pentsatutako, irudikatutako, desiatutako errealitate-eta, honekin batera, aurreiritziak, alderdikeriak eta ideologiak-, maiz, dagoen errealitatearen gainetik erabat inposatu, desitxuratu, mugatu egiten da, are ordezkatzen ere saiatzen dira. Ez dute kontutan hartzen errealitatea bera den bezalako; desitxuratu egiten dute; ez dute errespetatzen; eta batzuk sakrifikatze prest ere leudekeela emango luke. Honela ba, Euskal Herriaren izenean, autodeterminazio eskubidearekin, autodeterminatuta edo independente, Nafarroako -kasurako- errealitateko alderdi konplexuak bortxatu egiten dira, edo ez zaie heltzen behar den begirunearekin, edo lekuz kanpo eta nahasian geratzen dira interes handiko beste gune batzuk.

c. Gizakiei, gizon-emakumeei dagokienez, arras ondorio larriak dituen zuloan erortzen gara maiz aski:

- Geure buruak Jaungoikotzat hartzea: den guztia egingarria

dela pentsatzea; guztia zilegi dela eta guztiak balio duela, bai esku-bidea dugulako edo ezarrita dagoenaren indarra eta legezotasuna gure alde ditugulako.

- Jainkoak baino gutxiago garena pentsatzea: alegia, gizon-emakumeon bizia, bere horretan gorde eta defendatu nahi den idolo goren bihurtuta dagoena baino gutxiago balio duela pentsatzea -dela Nafarroa, dela Espainia, ordenu konstituzionala, Foru-Hobekuntza izenarekin edo dena delakoarekin ezagutzen dena-; edo eskuratu nahi den, are eskuratu beharrekoa ere, errealitate gertagarria eta hobea -dela autodeterminazioa edo Euskadi subiranoa-, idolo bihurtuta, gizon-emakumeon biziak baino gehiago balio duela pentsatzea eta hauen gainetik jar daitekeela edo hauek haren menpekoak izan daitezkeela pentsatzea.

5. Azken finean: errealitatearekiko zintzotasunak, izan badenaren izenean posible dena, hobea eta zuzenagoa izan litekeena, uka ez dezagun prestatu egiten gaitu; eta, era berean, posible eta hobearen izenean izan badena bistatik gal ez dezagun, honek merezi duen begirunea eta izan ditzakeen eskubideak kontutan hartuta; eta, lehenengoaren nahiz bigarrenaren izenean, existitzen den edo desiatzen den errealitate ororen printzipio eta zentzuaren iturri den hori uka ez dezagun: alegia, pertsona, gizon-emakumeon bizia.

1. Honetan manikeismoaz, gizar-tearen ikuspegi dualista ulertzen dugu, errealitate era erraz eta sektario batez bi eremu erabat hertsia, diametral eta elkartzinezko muturretan banatzea -positiboa bata eta negatiboa bestea-; zintzoak eta gaiztoak; egia, egia osoa dutenak batetik eta oker, oker hutsean daudenak bestetik; demokratak eta indarkeriaren aldekoak. Gauzak ez dira ematen horren zuri edo beltzean. Normalean bizitzak nabardura konplexu gehiago izaten ditu. Ez soilik muturren artean, gatazka egoera bateko muturretako bakoitzean ere baizik.

2. Izaera demokratiko batek kanpo uzten du manikeismoa eta, onartuz gero, bere izaera horri, den horretan, uko egiten arituko zaio, demokraziaren izena lau haizetara hedatzen duela ere.

a. Manikeismoa alde batera uzten duela erraten dut. Halaxe da, demokraziaren bizikidetasunezko helburuak gutxienez lau printzipio onartzea eskatzen du. Lau printzipio hauek, demokraziaren euskarri den gutxieneko antropologia positibotik ondorioztatzen diren minimoak dira, demokrazia barneratzen denean ez funtzionamendurako teknika hutsa bezala, baizik eta balore eta harreman modu gisa zein bizikidetasunerako estilo gisa. Gutxieneko antropologia hori ez da manikeismoarekin uztartzen. Aipatu lau printzipioak honako hauek dira:

- Nork bere interes indibidual eta partikularrak ukan eta bilatu arren, guztion amankomun diren eta gizon-emakumeon izaera so-

Fedearen izenean manikeismoa gainditu beharra dugu

zialari dagozkion bizikidetasunerako jarrera eta joera bat daude. Bizikidetasuneko printzipioa da.

- Integratze edo adostasun printzipioa: bizikidetasunak aniztasuna integratzea eskatzen du eta kontrajarriak dauden helburu eta interesak adostea. Nahiz eta aipatutako integratzea eta adostasuna, berez, berekoikeriarekiko aldi berekoa den, zeinak alde bakoitza gutxienekoa galtzera eta gehienekoa gordetzera bultzatzen baitu.

- Uko egite konstruktiboko printzipioa: bizikidetasun integratzaileak zerbait uko egiteko jarrera hartzea eskatzen du. Nolanahi ere, uko egite hau konstruktiboa da, gizarte-harremanak babestea ahalbideratzen baitu. Hargatik ere, aipatutako uko egite konstruktibo hori indar korrelazioak eta boterearen dialektikek baldintzatzen dute.

- Pertsonalismo gizatiarreko printzipioa: pertsona, bere interes partikularrak, berekoikeriak, kontraesanak eta are bidegabeko jokabideak ere baino areagokoa da. Aipatutako "areagoko" honek gizon-emakume ororen duintasunaren onarpena irekitzen digu; pertsona bakoitzak bere irekidura du, zeinak haren baitan edo harengandik zerbait berririk jasotzeko itxaropena ez galtzea ahalbideratzen baitu; eta, halaber, gizon-emakumeenganako konfiantzazko apostua egiten jarrai ahal izatea. Demokraziaren gutxieneko antropologia positiboaren baitan ez daiteke manikeismorik eman. Honek antropologia negatibo eta hertsian soilik izan

dezake bere euskarri. Hain da horrela, ezen manikeo-hizkeran, ETAz eta bere inguruneaz, batzuek basapiztiak, arratoiak direla baitiote. Demokrazian bere burua manikeo erakusten duenak, bere iritzi negatibotasunaren muturra ordezkatzan dutenen pertsona izaera ukatu beharra sentitzen du, berdin basapizti nahiz zakur deituta ere.

b. Manikeismoa onartzen duen demokraziak bere buruaren ukoa egiten du.

- Hasteko eta behin, bere burua demokrazia hertsia eta mugatu gisa eratzen edo taxutzen du, sektore oso bat kanpo uzten duela, zeina madarikatu egiten baitu.

- Bazter utzitako sektoreak indarra bidezko gatazka egin bertze aterabiderik ez duelako uste osotan sendotuko da. Hau, indarrean dagoen ordenuko sektoreek mehatxu eta ezegonkortasunerako iturri gisa hartuko dute.

- Demokraziak, uste osoko, elkarritzeta, alderatze eta adostasunerako mekanismoen kaltetan hertsadura, zapalkuntza eta indarkeria bultzatuko ditu. Honen ondorioz, demokraziak gero eta izaera autoritarioagoa hartuko du, demokraziatik gero eta gehiago urrunduz.

3. Gure artean, "euska gatazka" deritzan honeta, tamalez, manikeismoa eguneroko iharduera dugu, berezko izaera hartu du. Lagun izan ala etsai; abertzalea ala espainolista; demokrata ala bortxazalea; Estatu, honen insti-

tuzio eta Administrazioen alde zaude ala ETaren aldekoa zara; bi aldeetako bat argi eta garbi kondenatzen baduzu, bertzearen alde zaudenaren seinale; Estatua-ren jokabideak kritikatu gero; indarkeriaren aldeko babesa ematen ari zarela diote; borroka armatua nahiz kale borroka kritikatu, babesa Estatuari ematen ari zarela diote.

- Bata bertzearekin indartzen den manikeismoak ditugu gure aurrean.

- Nik iritzi, kulturalki, behintzat, aurre-demokraziako egoera bat erakusten duten adierazleak dira. Hau oso adierazgarria da elkar-tze-sozietate ehuneko sare itxiz tratatutako gizarte batean. Nire iritzi kultur politikoa gainbehera dator abiadura handian. Hala ere, guztiok darabilgu ahotan demokrazia, eta haren izenean solastu eta iharduten dugu.

4. Kristau-fedeak, manikeismoa gainditzera eta horri aurre egitera bultzatzen duten elementu eta edukiak ematen ditu.

a.- Jesusen praktika:

- Jesus ez da inozoa. Errealitatean sustraituta bizi da. Badaki, jakin ere, gauzak nola dauden eta zein indar eremutan diharduen. "Badaki gizonaren bihotzean zer dagoen". Hargatik "ez zen haiez fidatzen edo haien esku jartzen", bere etsaien esku. Bere ikasleei "usoak bezain xalo, baina sugeak bezain zuhur" izaten erakusten die eta badaki "otsoen artean bildots bailiran igortzen dituela".

- Jesus ez da gizarte-multzoan gaizto eta onen arteko bereizketa egiten duen horietakoa. Aitzitik, madarikatu eta azkenekotzat joak diren horiengatik izkutuko aberas-tasunak ikusten ditu; jentilak izan, nahiz kananearra edo zen-turioi, edo samariar, nahiz peka-tari, zein herria izan, zeina, ezja-kina izaki, pekataritzat joa baita ("Nik goستن زایت, آیتا, گایا هاک جاکینسوی عکوتایا ای جنده اپالاری ارربیلایا دیککویولایا"). Aitzitik, agerian uzten ditu, maiz, "onak" eta ordenua zaindu behar dutenen gaiztakeria eta gezurrak; hauei "zuritutako hila-biak", "suge arraza" deitzen die, "eltxoia iragazi eta gamelua iren-ten dutenak". Honengatik, Jesu-sek, baztertuen alde eginez, ez ditu bertzeak bazter uzten. Egoe-ra onean bizi eta ongi pentsatzen dutenekin harremanetan jartzen denean, behean daudenekiko beren bihotza eta gogoa ireki dit-zaten komentzitzen ditu. Bere etxean hartzen duen fariseoaren nahiz Zakeoren kasua da.

- Horrexegatik, Jesusek ikusarazi nahi digu gaizkia eta bekatua gu guztiongan dagoela. "Zuetarik norbait bekatu gabea bada, bota dezala lehenengo harria". Gauza da "besteren begian samar kentzea, baina habea norberare-nean ikusi eta kenduta". Gauza da "zein gari eta iraka hazten den elkarrekin" ikustea eta irakaren aurkako eramanik eza eta sobera ardura ongiaren kaltetan izan dai-tekeela.

- Jesusek honengatik ez du inor zigortzen eta gu ere ez zigortze-ra gonbidatzen gaitu: "ez inor kondenatu eta inork ez zaituzte

kondenatuko". Eta "zeruetako gure Aita den bezala, gu ere per-fektuak izatera deitzen digu; hark zintzo eta gaiztoentzat argitzen du eguna eta euria ere zuzen nahiz oker jokatzeko dutenei igortzen die".

b. Bihozbertzearen aldeko deia oinarritzeko edukia da kristauak federekin duen bizipenean. Eduki horri jarraiki, kristaua ondorengo hauetarako egon dai-teke prest:

- bere okerez ohartu eta hauek onartzeko;

- besteak kondenatzeko uzkur izateko;

- besteengandik jasotzera eta hauek hobetua eta osatua izateko zabalik egoteko.

Fedeak, gure historia propioaren subjektu protagonista izatea exigitzen digu

Modernitatearen erdiespenetako bat gizon-emakume indibidual nahiz sozialak subjektu izatearen kontzientzia hartzea finkatu izana izan zen. Subjektu delako, politiko-a da; berari dagokio mundua antolatzea. Eta, halaber, subjektu delako, moral eta etikoki, anto-latzen duen munduaren ardura-duna. Gaizki deitutako kultura postmodernoa gizon-emakumeon subjektu izaera hura zalantzan jartzen saiatu zen denbora batez. Neoliberalismoak, kontrol gabe krisi egoeratik ateratzeko, bere interesen menpe eta horien erra-netara egonen zen gizartea behar zuen. Gaur egun badakigu gauza ez dela historia subjekturik gabe-ko prozesua izatea, milaka milioi gizon-emakume, bidegabeki, his-toriatik bazter utziak direla bai-zik.

2. Agerkondeak sinesdunei beren bizitza indibidual eta kolektiboko subjektu eta protagonista izate-aren eta halaxe behar duenaren kontzientzia sendotzen die. Sor-tzailearekin sortzaile eta haren lanarekin jarraituzera deituak, Izpi-rituak igurtziak eta haren energia sortzailearekin izendatuak, denek somatzen dute bere burua gizale-gezko eta anaitasuneko mundua eraikitzeko zeregin handirako deituak eta gonbidatuak. Mun-duaren Sortzaile eta Salbatzaile-aren asmoen arabera mundua.

3. "Euskal gatazka" izenekoan nabarmentzen den arazoetako bat protagonismoa ia osorik bi gatazka egile nagusiengana murrizteko joera da:

a. Batetik, hemen bizi dugun gatazka alde batera utzita, gaur egungo joera, politika "politiko-en" ondare bihurtzea da, eta poli-tikoena baino ez. Honetaz gaine-ra, hauek, gizartearen ordezkari gisa, gizartearen ginetik eta honen alde batera kokatzen den Estatuko funtsezko zati bat izatea da joera, gero eta gehiago.

b. Bestalde, egia da ETAK bere alternatibaren gizarte osoaren eta alderdi politikoen zein instituzio-en ezinbesteko eginkizuna eta protagonismoa onartzen duela. Baina, protagonismo hau biga-rrerenean batean bihurtuko da era-gile, jokaleku politiko berri bate-rako gutxieneko puntuak ezarri ondoren.

c. Afera, ordea, hau da: bien bitartean, eta bakoitzaren dina-mika menperatzaile eta aurrez aurrekoen ondorioz, gizartea

menpeko eta alde bakoitzaren jarraitzaile izatera bultzatuta ikusten duela bere burua: dela Estatuaren inguruan, dela ETaren inguruan. Azken finean, nola bloke batek hala bertzeak gatibu daukate gizartea. Menpeko bihurtzen dute eta orainean nahiz orainerako duen utziezineko ardura, mugatu egiten dute. Une honetan, nazio gatazkari dago-kionez, Estatuak eta ETak dute benetako protagonismoa, zeina indarkerian oinarritutako bideetan zehar baitaramate.

4. Nafar gizarteak, euskal gizarteak orokorrean, berari dagokion subjektu izaera berreskuratzea eta sustatzea izan behar du helburu. Ezin onar dezakete alde baten edo bestearen ingurukoak baino ez izatea. Hauxe da afera: ahalbait independentzia eta autonomia gehienaz, gizartea ezinbertzeko erreferentzia puntu eta presio gune bihurtzea gatazka honetako subjektu protagonisten aurrean.

a. Gizartean eztabaida zabal bat ireki behar da. Honako edukiok izanen lituzke, bertzeak bertze: herri honen identitatea, zer-nolako proiektu kultural, politiko eta sozial nahi dugun, bizi dugun indarkerian oinarritutako borroka, bakerako proposamen edo estrategiak... Honen berehalako helburuak honako hauek lirateke: errealtate anitza eta izan badiren kontzientzia egoerak agerian uztea, errespetuan eta tolerantzian alderatze eta elkarrizketarako ihardunbide demokratikoa sozialki finkatzea, iritzi kolektiboko egoerak sortzea eta gauzatzea, ahalbideratzea...

b. Honek guztiak, inolako zalantzarik gabe, bere eragina izanen luke gatazka honetako egile nagusiengan.

- Estatuari eta berek "bloke demokratikoa" deitzen duten horri errealtate osoa hartu behar dela kontutan, bertze blokea bazterrerara uzterik ez dagoen errealtate bat dela eta honekiko ulermena gauzatu beharra dagoela ikusaraz liezazkieke. Ezin direla bildu eta ezin dutela beren burua, nagusiki, termino negatiboetan definitzen jarraitu -"aurka" kokeria horretan: euskaldunen aurkakoa, indarkeriaren aurkakoa, ETaren aurkakoa-, termino positiboetan, bizikidetasun eta bake-proposamen positiboetan inguruan baizik. Ezin direla Estatuaren arrazoian babestu oinarritzko eskubideak urratu eta legez kanpoko bideak jorratzeko. Gizartearen esanetara daudela eta honek arazoei soluzioa ematea eskatzen diela, soluzio demokratikoa eta, beraz, elkarrizketa bidea jorratzen saiatu beharko liratekeela eta horren aldeko apostua egin.

- Nafarroan, beharbada, eta arestian aipatutako bideari jarraiki, zenbait datu berezi oroituz behar izango genituzke: bertan euskaltasunarekiko sentimendua eta estimua ezin murriz daiteke gehiengo eta gutxiengo parlamentarioen jokora, ezta eskuindar-ezkertiarrenera ere. Estatistikoki badirudi euskal kulturaren aldeko estimua gorantz doala, ezkertiarren botuak eta ezker erradikalenak beherantz egiten duten bitartean. Beraz, Nafarroan, gaur egun, euskaltasunareki-



ko goranzko gogo bat ez dator, derrigorrez, proiektu politiko eta sozial bakarraren eskutik.

- Bloke erradikalenari dagokionez, gizarte mailan gauzatutako eztabaida zabal batek zenbait gauza argiago jasotzen lagunduko lioke, hala nola:

- Demokrasiak mekanismo eta instituzio juridiko batzuk ezartzea eskatzen duela, baina ez soilik horietara mugatuz. Honela ba, demokrazia ezin planteatu daiteke "gero" arrunt bat bezala -alegia, aipatutako mekanismoak gauza-

tuta-. Demokrazia izaera bat da, bizitzeko eta bizikidetasunerako modu bat. Horregatik da "orain" bat, prozesu irekia bezala ulertuta.

- Batzuetan, Euskal Herria, autodeterminazioa... bezalako errealtateen ulermen kasik eta fisiko, material eta estatikoarekin funtzionatzen dela, naturan ematen diren gertakariak bailiran. Baina aurrean ditugun elementuak bertze izaerakoak dira, izaera moralekoak hain zuzen ere. Errealtatean oinarrituta daude, bai. Baina, izaera eta indar soziala

har dezaten, kontzientzia erdietsi behar dute, eta bertan kokatu behar dira. Alor honetan luzea da oraindik ibili beharreko bidea. Eta idiok mantsok bagara, ez dut uste gehiago aurreratuko dugunik gurdia idion aurrean jarrita; alegia, zeregin handietako bat izaten jarraitzen duen horren beraren izenean prozesuak muturretara eramaten.

- Bizikidetasun demokratikoko ikuspuntu batetik funtsezkoak diren puntu batzuen inguruan gizarte osoa aktibatu eta mugiarazteko, gauza ez da gerora itxaron behar dugula (negoziaziorako jokaleku zehatz baten zain egon behar dugula). Une honetatik bertatik gizartean ematen diren alderdi hauei buruzko argibide aunitz hausnartzen hasi behar gara. Nolanahi ere, zeregin honek ezin du aurrera egin bide demokratikoetatik ez bada. Ez inposaketa erabiliz, baizik eta uste osoko bideak jorratuz. Espainiar identitatearekiko arazo hau da, hain juxtu ere, inposaketarena.